

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

2798

128/2025 DEKRETUA, ekainaren 17koa, ontzat ematekoa Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan lan-harremana duten atzerritarrek norberaren edo besteren kontura lan egiteko hasierako baimenei buruzko Estatuko lan-legeria betearazteko Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak.

Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakiaren 2. artikuluan ezarritakoa betez –irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak onartu zuen–, eta bertan eskatutako formalizazio-izapideak betetze aldera, dekretu honek bi xede ditu: batetik, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren osoko bilkurak 2025eko maiatzaren 30ean hartutako erabakia onartzea –Euskal Autonomia Erkidegoan lan-harremana duten atzerritarren norberaren edo besteren konturako lanerako hasierako baimenei buruzko Estatuko lan-legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeko da erabaki hori–; eta, bestetik, eskualdatutako eginkizun eta zerbitzu horiek atxikitzea.

Horren ondorioz, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuak, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuak eta Ogasun eta Finantzetako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2025eko ekainaren 17an egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Onartzea Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak 2025eko maiatzaren 30ean hartutako erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-harremana duten atzerritarren norberaren edo besteren konturako lanerako hasierako baimenei buruzko Estatuko lan-legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeko, ekainaren 17ko 511/2025 Errege Dekretuan ezarritako baldintzetan. Halaber, agintzea errege-dekretu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitaratu dadila, dekretu honen eranskin gisa.

2. artikulua.– Eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari atxikita egongo dira aurrerantzean.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko ekainaren 17an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua,
MIGUEL TORRES LORENZO.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
NOËL D'ANJOU OLAIZOLA.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,
MARÍA UBARRECHENA CID.

ERANSKINA, EKAINAREN 17KO 128/2025 DEKRETUARENA

Errege-dekretua, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen baitzaizkio Euskal Autonomia Erkidegoan lan-harremana duten atzerritarren norberaren edo besteren konturako lanerako hasierako baimenei buruzko Estatuko lan-legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak.

Konstituzioak 149.1.7 artikuluan xedatzen du Estatuak duela lan-arloko legegintzako eskumen eksklusiboa, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoetako organoek hura betearaztea. Era berean, 149.1.2 artikuluan Estatuari eskumen eksklusiboa esleitzen dio naziotasunaren, immigrazioaren, emigrazioaren, atzerritartasunaren eta asiloaren arloan.

Bestalde, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 12.2 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak du lan-arloko legeria betearazteko eskumena, bere gain hartuz lan-harremanen inguruan Estatuak gaur egun dituen ahalmen eta eskumenak; halaber, badu, Estatuaren goi-ikuskaritzarekin batera, lanari buruzko legeak betearazteko zerbitzuak eratzeko, zuzentzeko eta babesteko ahalmena, langileen kualifikazioa eta hezkuntza osoa bultzatzea daitezkeen lan-baldintzak gizartearen aurrerabide eta aitzinamenduari egokitzen saiatuz.

Aplikatzekoa den lan-arloko legeria arau hauek osatzen dute: 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organikoa aldatu ondoren; eta 1155/2024 Errege Dekretua, azaroaren 19koa, Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartzen duena.

Azaroaren 19ko 1155/2024 Errege Dekretuaren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko apirilaren 24ko (EB) 2024/1233 Zuzentarauaren transposizio partziala egin da Espainiako ordenamendu juridikoan. Zuzentzarau horrek baimen bakarra eskatzeko prozedura bakarra ezartzen du, hirugarren herrialdeetako herritarrei estatu kide baten lurraldean bizitzeko eta lan egiteko baimena ematen dien baimen bakarra eskatzeko prozedura bakarra ezartzen du, eta eskubide komun batzuk ezartzen ditu estatu kide batean legez bizi diren hirugarren herrialdeetako langileentzat.

Azkenik, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrek eta irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak zehatz ezartzen dute zein eratan eta zer prozeduraren bidez eskualdatu behar zaizkion Euskal Autonomia Erkidegoari Estatuko Administrazioaren zerbitzuak.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aipatzen den Batzorde Mistoak, 2025eko maiatzaren 30eko bilkuran, erabaki zuen Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea Euskal Autonomia Erkidegoan lan-harremana duten atzerritarren norberaren edo besteren konturako lanerako hasierako baimenei buruzko Estatuko lan-legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak. Erabaki hori Gobernuari helarazi zaio, errege-dekretu bidez onartzeko.

Ondorioz, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean xedatzen dena betez, Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko ministroak proposatuta eta Ministro Kontseiluaren 2025eko ekainaren 17ko bilkuran aztertuta, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Batzorde Mistoaren erabakia onartzea.

Onartu egiten da Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Batzorde Mistoak hartutako erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan lan-harremana duten atzerritarrei beren kontura edo besteren

kontura lan egiteko hasierako baimenak emateari buruzko Estatuko lan-legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak. Erabaki hori Batzorde horren osoko bilkurak hartu zuen 2025eko maiatzaren 30eko bilkuran, eta errege-dekretu honen errege-dekretu honen eranskin gisa ageri da.

2. artikulua.– Eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzea.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoan lan-harremana duten atzerritarren norberaren edo besteren konturako lanerako hasierako baimenei buruzko Estatuko lan-legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak. Batzorde Mistoak hartu duen erabakian ezarritako moduan egingo da eskualdatze hori, bai eta han zehazten diren termino eta baldintzen arabera ere.

3. artikulua.– Eskualdatzearen eraginkortasuna.

Batzorde Mistoaren erabakian adierazten den egunetik aurrera izango du eragina eskualdatzeak.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA. Indarrean jartzea.

Errege-dekretu hau aldi berean argitaratuko da Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

ERANSKINA, EKAINAREN 17KO 511/2025 ERREGE-DEKRETUARENA

Jorge García Carreño jaunak eta Begoña Pérez de Eulate González andreak, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aipatzen den Batzorde Mistoko idazkariak direnez, hau

ZIURTATZEN DUTE:

Batzorde Mistoak, 2025eko maiatzaren 30ean egindako osoko bilkuran, erabaki zuen Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea Euskal Autonomia Erkidegoan lan-harremana duten atzerritarren norberaren edo besteren konturako lanerako hasierako baimenei buruzko Estatuko lan-legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak, jarraian adierazten den moduan:

A) Eskualdatzea babesten duten Konstituzioko, estatutuko eta legezko araei buruzko erreferentziak.

Konstituzioak 149.1.7 artikuluan xedatzen du Estatuak duela lan-arloko legegintzako eskumen eskusiboa, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoetako organoek hura betearaztea. Era berean, 149.1.2 artikuluan Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen dio naziotasunaren, immigrazioaren, emigrazioaren, atzerritartasunaren eta asiloaren arloan.

Bestalde, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 12.2 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak du lan-arloko legeria betearazteko eskumena, bere gain hartuz lan-harremanen inguruan Estatuak gaur egun dituen ahalmen eta eskumenak; halaber, badu, Estatuaren goi-ikuskaritzarekin batera, lanari buruzko legeak betearazteko zerbitzuak eratzeko, zuzentzeko eta babesteko ahalmena, langileen kualifikazioa eta hezkuntza osoa bultzatzen lan-baldintzak gizartearen aurrerabide eta aitzinamenduari egokitzen saiatuz.

Aplikatzekoa den lan-arloko legeria arau hauek osatzen dute: 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organikoa aldatu ondoren; eta 1155/2024 Errege Dekretua, azaroaren 19koa, Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartzen duena.

Azaroaren 19ko 1155/2024 Errege Dekretuaren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024ko apirilaren 24ko (EB) 2024/1233 Zuzentarauaren transposizio partziala egin da Espainiako ordenamendu juridikoan. Zuzentarau horrek baimen bakarra eskatzeko prozedura bakarra ezartzen du, hirugarren herrialdeetako herritarrei estatu kide baten lurraldean bizitzeko eta lan egiteko baimena ematen dien baimen bakarra eskatzeko prozedura bakarra ezartzen du, eta eskubide komun batzuk ezartzen ditu estatu kide batean legez bizi diren hirugarren herrialdeetako langileentzat.

Azkenik, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrak eta irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak zehatz ezartzen dute zein eratan eta zer prozeduraren bidez eskualdatu behar zaizkion Euskal Autonomia Erkidegoari Estatuko Administrazioaren zerbitzuak.

Arauzko aurreikuspen horietan oinarrituta, bidezkoa da hau formalizatzea: erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen baitzaizkio Euskal Autonomia Erkidegoan lan-harremana duten atzerritarren norberaren edo besteren konturako lanerako hasierako baimenei buruzko Estatuko lan-legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzekoa.

B) Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkion Estatuko Administrazioaren eginkizunak.

1.— Hasierako lan-baimenak. Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ditu Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzu hauek: Euskal Autonomia Erkidegoan lan egingo duten atzerritarren norberaren edo besteren konturako lanerako hasierako baimenei buruzkoak. Era berean, bere gain hartzen ditu eskualdatze-erabaki honen eranskinean agertzen diren baimenen aldaketak ere, eskualdatze-erabaki hau indarrean dagoen Estatuko legeriaren arabera. Horien artean sartzen dira prozedurak hastea, izapidetzea, ebaztea eta jakinaraztea —haien aurka aurkeztu diren administrazio-errekurtsoak barne—, eta ikuskapen- eta zehapen-araubidea aplikatzea.

Hori horrela, espedientea Estatuko Administrazio Orokorrari helaraziko zaio, izapidetzen jarraitu dezan. Hasierako lan-baimenaren ebazpena Estatuko Administrazio Orokorreko agintaritza eskudunak bizileku-baimenari buruz emandako ebazpenarekin batera eta koordinatuta emango da.

Atzerritarren norberaren edo besteren konturako lanerako hasierako baimenak edo haien aldaketak (erabaki honen eranskinean agertzen dira) unean-unean indarrean dagoen araudiaren arabera eguneratuko dira, erabaki honen E) apartatuan aurreikusten den jarraipen-batzordean.

Transferentzien Batzorde Mistoak erabaki beharko du eranskinean gehitzea atzerritarren norberaren edo besteren kontura lan egiteko hasierako edozein baimen berri, baldin eta unean-unean indarrean dagoen araudiak jasotzen badu eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremuari badagokio.

2.— Sasoiko jarduerarako baimenak. Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ditu Estatuko Administrazio Orokorrak garatzen dituen eginkizunak eta zerbitzu hauek: atzerritarrek Euskal Autonomia Erkidegoan sasoiko jardura egiteko lan-baimenei buruzkoak. Era berean, bere gain hartzen ditu erabaki honen eranskineko baimen horien aldaketak edo berritzeak ere, eskualdatze-erabaki hau indarrean dagoen Estatuko legeriaren arabera. Horien artean sartzen dira prozedurak hastea, izapidetzea, ebaztea eta jakinaraztea —haien aurka aurkeztu diren administrazio-errekurtsoak barne—, eta ikuskapen- eta zehapen-araubidea aplikatzea.

Hori horrela, espedientea Estatuko Administrazio Orokorrari helaraziko zaio, izapidetzen jarraitu dezan. Hasierako lan-baimenaren ebazpena Estatuko Administrazio Orokorreko agintaritza eskudunak bizileku-baimenari buruz emandako ebazpenarekin batera eta koordinatuta emango da.

Sasoiko jarduerarako baimenak edo haien aldaketak eta berritzeak (erabaki honen eranskinean agertzen dira) unean-unean indarrean dagoen araudiaren arabera eguneratuko dira, erabaki honen E) apartatuan aurreikusten den jarraipen-batzordean.

Transferentzien Batzorde Mistoak erabaki beharko du eranskinean gehitzea sasoiko jarduerarako edozein baimen berri edo baimen horren aldaketak eta berritzeak, baldin eta unean-unean indarrean dagoen araudiak jasotzen baditu eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremuari badagokio.

3.– Jatorriko herrialdean kontratatzeko kudeaketa kolektiboa. Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ditu Estatuko Administrazio Orokorrak jatorriko herrialdean kontratatzeko kudeaketa kolektiboari buruz garatzen dituen eginkizunak eta zerbitzuak, hain zuzen lan-arloko izapideei dagokienez, aplikatu beharreko Estatuko araudiarekin bat etorriz. Honako hauek dira:

a) Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioak okupazioen eta enplegua bilatzeko bisen urteko aurreikuspena egin aurretik, jarraipen-batzordea bilduko da, Euskal Autonomia Erkidegoak bere lurralde-eremuko okupazioen eta enplegua bilatzeko bisen bilakaerari buruz egindako proposamena aztertzeke eta ebaluatzeke.

b) Lan-eskaintzen eskabideak jasotzea; eskaintzak egiaztatzea eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzea; baloratzea eta aldeko txostena ematea eta Estatuko Administrazio Orokorrari helaraztea, izapidetzen jarrai dezan; eta lan-baimenak edo bizileku- eta lan-baimenak batera ematea, jatorriko herrialdean kontratatzeko kudeaketa kolektiboa gauzatzearen ondorioz.

c) Prestakuntza-ikastaroak sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoan, eta Estatuko Administrazio Orokorrarekin lankidetzan aritzea ikastaro horiek jatorrizko herrialdeetan planifikatzen, hautatu diren edo aurrez hautatu diren langileentzat.

4.– Errotze soziorabala. Euskal Autonomia Erkidegoak egiaztatuko du, txosten baten bidez, sustraitze soziorabala lortzeko lan-kontratuaren edo -kontratuen baldintzak betetzen direla, betiere lan-jardura Euskal Autonomia Erkidegoan egiten bada. Baimen hori luzatzeari dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoak egiaztatuko du, txosten bat eginez, atzerritarra enplegu-egoera aktiboan dagoen eta eskatzaile gisa inskribatuta dagoen autonomia-erkidego horretako Enplegu Zerbitzu Publikoan.

5.– Errotze sozioformatiboa. Euskal Autonomia Erkidegoak, txosten baten bidez, gizarte- eta prestakuntza-sustraitzea lortzeko behar diren prestakuntzak eta irakaskuntzak baliodunak diren egiaztatuko du, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan egitekoak badira. Baimen hori luzatzeari dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoak prestakuntzarekin lotutako baldintza espezifikoak betetzen diren ziurtatuko du, edo, hala badagokio, atzerritarra enplegu-egoera aktiboan dagoen eta autonomia-erkidego horretako Enplegu Zerbitzu Publikoan eskatzaile gisa inskribatuta dagoen egiaztatuko du. Horretarako, bi kasuetan, txostena egingo du.

C) Estatuko Administrazioak beretzat gordetako eginkizunak.

Estatuko Administrazio Orokorrak eginkizun hauek gordeko ditu beretzat:

1.– Atzeritarrentzako lan-baimenen arloan aplikatu beharreko legeria.

2.– Atzeritartasunaren eta immigrazioaren esparruan, migrazio-fluxuen erregulazioari eragiten dioten nazioarteko tresnak negoziatzea eta egitea, hasierako bizileku- eta lan-baimena barne, eta ordezkari aritzea Europar Batasunaren eremuetan edo immigrazioari eta atzeritartasunari buruzko

nazioarteko edozein forotan (aldebikoak edo aldeaniztunak), hargatik eragotzi gabe Euskal Autonomia Erkidegoak foro horietan parte hartzea, aplikatu beharreko araudian aurreikusitako moduan.

3.– Jatorriko herrialdean kontratatzeko kudeaketa kolektiboari dagokionez, eskaintzak herrialde jakin batzuetara bideratzeari buruzko erabakia hartzea, eta herrialde horietako agintariekin harremanak izatea jatorriko herrialdeetako aurre-hautaketako eta hautaketako faseetan, hargatik eragotzi gabe Euskal Autonomia Erkidegoak enplegatzailearen ordezkari gisa jardutea.

4.– Eskualdatze honen xede ez diren bizileku- eta lan-baimen guztiak izapidetzea eta ebaztea.

5.– Atzeritarren norberaren edo besteren konturako lanerako hasierako baimenen prozeduren kudeaketa elektronikoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoarekin koordinatuta, formatu eta estandar komunak ezartzea, informazioaren elkarreragingarritasuna, segurtasuna, kontserbazioa eta normalizazioa bermatzeko.

D) Lankidetzako formula instituzionalak.

1.– Atzeritarren norberaren edo besteren konturako lanerako hasierako baimenetarako prozeduren kudeaketa elektronikoari dagokionez, erabaki honen 1. erabaki osagarrian aurreikusten den moduan erabiliko da abian dagoen aplikazio informatikoa eta trukatu da informazioa bi administrazioen artean.

2.– Estatuko Administrazio Orokorreko organo eskudunen eta Euskal Autonomia Erkidegoko enplegatzailearen artean beharrezkoa den koordinazioa bermatze aldera eta Autonomia Erkidegoak Autonomia Erkidegoarentzat garrantzi handia duten atzeritarren lan-arloko Estatuaren erabakietan parte hartuko duela ziurtatze aldera, bi administrazioek hitzarmen bat sinatuko dute, kudeaketan elkarrekin jardutea ahalbidetuko duten organoak edo bestelako lankidetzak ezartzeko, bereziki jarraipen-batzordea (hurrengo apartatuan aurreikusten da hura eratzea).

Koordinazio hori ezinbestekoa da prozeduren beharrezko sinplifikazioa eta eraginkortasuna lortzearen, eta gardentasunaren, ekitatearen eta diskriminaziorik ezaren printzipioak une oro errespetatuz gauzatu beharko da.

3.– Jarraipen-batzorde paritario bat eratzen da, eskualdaketa honen eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoak diren lankidetzak harremanak bideratze aldera. Sei kidek osatuko dute: hiru Estatuko Administrazioak izendatuko ditu, eta beste hirurak, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak.

Jarraipen-batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

– Eskualdatze-erabaki hau aplikatzean sortu litezkeen zalantzak argitzea.

– Eskualdatze-erabaki honetan aurreikusitako lankidetzak eginkizunak betetzea.

– Zuzenean eragiten dieten atzeritarren lanari eta bizilekuari buruzko gaiak aztertzea.

– Aztertu eta onartzea, batetik, atzeritarren norberaren edo besteren konturako lanerako hasierako baimenen edo haien aldaketen eguneratzea eta, bestetik, sasoiko jarduerarako baimenen, haien aldaketa eta berritzeen eguneratzeak (erabaki honen eranskinean agertzen dira), unean-unean indarrean dagoen araudiaren arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremuan.

– Euskal Autonomia Erkidegoak bere lurralde-eremuko okupazioen eta enplegua bilatzeko bisen bilakaerari buruz egindako proposamena aztertzea eta ebaluatzea, Inklusio, Gizarte Segurantzak eta Migrazio Ministerioak okupazioen eta enplegua bilatzeko bisen urteko aurreikuspena egin aurretik.

Batzordea urtean bitan bilduko da gutxienez, eta, horrez gainera, bi administrazioetako edozeinek eskatzen duenean.

4.– Estatuko Administrazio Orokorrak eta Euskal Autonomia Erkidegoak hitzarmenak, akordioak edo bestelako lankidetzak-tresnak egin ahal izango dituzte, haien arteko lankidetzak-harremanak estutzeko eta bizileku- eta lan-baimenetarako prozeduren kudeaketa eraginkorragoa izan dadin, aurretiaz jarraipen-batzordearen oniritzia jasota.

E) Eskualdatzen diren lanpostuak.

1.– Eskualdatzen diren eginkizun eta zerbitzuei atxikitako lanpostu hutsak honi erantsitako 1. zerrendan daude zehaztuta.

2.– Zerrenda horretan zuzenketarik edo aldaketarik egin behar bada, administrazio biek aurretiaz egiaztatuta egingo dira. Horretarako, Transferentzien Batzorde Mistoak ziurtagiri bat emango du.

F) Eskualdatzearen eraginpeko aurrekontu-kredituak.

1.– Eginkizunen eta zerbitzuen eskualdatze honi lotutako estatu-mailako urteko kostu osoa honi erantsitako 2. zerrendan dago adierazita.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoari 51.294,72 euro transferitzen zaizkio, behin bakarrik eta estatu-mailako urteko kostu osoan sartu gabe.

G) Eskualdatutako eginkizunen eta zerbitzuen dokumentazioa eta espedienteak.

Eskualdatzen diren eginkizunen eta zerbitzuen dokumentazioa eta espedienteak hiru hilabeteko epean entregatu behar dira, erabaki hau onartzen duen errege-dekretua argitaratzen denetik aurrera.

H) Eragin-eguna.

Erabaki honen bidez onartu den eginkizunen eta zerbitzuen eskualdatzeak 2025eko uztailaren 1ean izango du eragina.

Eta jasota gera dadin, ziurtapen hau ematen dute Madrilen eta Vitoria-Gasteizen, 2025eko maiatzaren 30ean. Batzorde Mistoko idazkariak: Jorge García Carreño jauna eta Begoña Pérez de Eulate González andrea.

ERANSKINA

Lan-harremana Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen duten baimen-motak, eskualdatzeak eragina duen unean indarrean dagoen Estatuko legeriaren arabera	Honen erreferentzia: 1155/2024 Errege Dekretua, azaroaren 19koa, 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartzen duena (4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, Atzerriarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko eta atzeritar horiek gizarteratzeari buruzkoa)
1.– Besteren kontura eta norberaren kontura lan egiteko baimenak, iraupen luzeko egonaldien titularrentzat, ikasketengatik, ikasleen mugikortasunagatik, boluntario-zerbitzuagatik edo prestakuntza-jarduerengatik.	57. artikulua, 52.1 b), c), d) eta e) artikuluekin lotuta.
2.– Hasierako bizileku-baimenak eta besteren konturako lanerako baimenak.	73. artikulua.
3.– Aldi baterako bizileku-egoeratik bizileku- eta lan-egoerara aldatzea, bizileku-baimen baten titular gisa urtebete baino gutxiago daramaten pertsonentzat.	191,2. artikulua.
4.– Hasierako bizileku-baimenak eta norberaren konturako lanerako baimenak	83. artikulua.
5.– Bizileku- eta lan-baimena aldatzea, baldin eta aldaketa horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuari bakarrik eragiten badio.	192. artikulua.
6.– Mugaz gaindiko langileentzako besteren konturako lanerako hasierako baimenak.	157.2 a) artikulua.
7.– Mugaz gaindiko langileentzako norberaren konturako lanerako hasierako baimenak.	157.2 b) artikulua.
8.– Mugaz gaindiko langileentzako besteren konturako eta norberaren konturako lanerako hasierako baimenak luzatzea.	158. artikulua.
9.– Sasoiko jardueretarako hasierako lan-baimenak.	101. artikulua.
10. Sasoiko jardueretarako hasierako lan-baimenak berritzea.	112. artikulua.
11.– Aldi baterako bizilekua izateko eta lan egiteko baimena aldatzea.	191.6 artikulua.

1. ZERRENDA
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI ESKUALDATZEN ZAIZKION LANPOSTUAK

Lanpostua	Lanpostuaren izena	Maila	Taldea	Berriarazko osagarria	Lanpostuaren ezaugarriak	Eremua	L.E.	Unitatea	Unitatearen izena	Abik.-unit.	Abik.-unitatearen izena
5031091	Atzeritartasuneko laguntzailea	15	C2	5.217,38 €	AE ZK. ESP. 11 L.J. F.:	EXTR-OTR	UE_TR A	49167	Arabako Atzeritarren bulegoa	27018	Gob. Ordezkarior. Arabari - Lan eta Immigrazioako Eremu Funtzionala
4577892	Atzeritartasuneko laguntzailea	15	C2	5.217,38 €	N C A1 EX11 A.P.T.F.:	EXTR-OTR	UE_TR A	49164	Gipuzkoako Atzeritarren bulegoa	27019	Gob. Ordezkarior. Gipuzkoan - Lan eta Immigrazioaren arloko Probintzia- Bulegoa
2095466	Bulegoko laguntzailea	14	C2	4.681,60 €	N C AE EX11 T.F.:	SG-	UE_SG	27005	Gob. Ordezkarior. Bizkaian - Idazk. Nag.	1079	Gob. Ordez. EAE-n
2597940	Bulegoko laguntzailea	14	C2	4.681,60 €	N C AE EX11 A.P, LCA T.F.:	SG-	UE_SG	27005	Gob. Ordezkarior. Bizkaian - Idazk. Nag.	1079	Gob. Ordez. EAE-n

2. ZERRENDA

ESTATU-MAILAKO URTEKO KOSTU OSOA

(Milaka eurotan, 2023)

22. atala. Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko Ministerioa

Aurrekontu-aplikazioa	Kapitulua	Zenbatekoa
22.02.921P	1	1.294,40
22.02.921P	2	124,23
22.02.922M	1	37,09
22.01.921M	1	0,14
22.01.921M	2	0,68
Gastuak, guztira		1.456,54
Tasa bidezko diru-sarrerak		- 3533,93
Guztira		- 2077,39